

# EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1985-VII-19

Donostian, Gipuzkoako Diputazio Jauregian, uztailaren 19an arratsaldeko 4etan egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarrea. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, P. Salaburu, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. P. Andiazabal, J. A. Arana, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, P. Goenaga, J. L. Lizundia, M. Zalbide eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dutenak, J. L. Davant, E. Knörr eta P. Larzabal izan dira.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Ekaineko batzar agiria onartu da.

## Goizeko bilkuraren berri

*Maileguzko hitzen VIII.atala.* Emile Larre eta Beñat Oyhartzabal jaunekin batera prestatutako erabakigaiak aurkeztu du J. Haritschelhar jaunak. “Bi txistukari elkarren ondoan” gertatzen direneko kasua, alegia. Azken orduan banatu zaie euskaltzainei txostena, hots, goizeko batzarraren hasieran, eta astiro ikusteko epea eskatu dute batzartuek. Beste aldi baterako utzi da, beraz, eztabaida eta azken onespena.

Hau da mailegu berriei buruz Euskaltzaindiak bere plangintzan hartzekoa duen azken erabakia eta, hartu bezain laster, *Euskera*-n argitaratuko du adierazpen hauen bilduma euskaltzainburuaren hitzaurrearekin.

*Euskaltzain berriaren izendapena.* Eguneko gaien bigarren pundua, P. Lafitte zenaren hutsunea betetzeko euskaltzain berria hautatzea zen. Aurkeztutako hautagai bakarra, Pierre Charritton, honako hiru euskaltzainok babestu dute: J. Haritschelhar, J. L. Davant eta J. San Martinek. Bere merezimenduen agerpena egin ondoren, Arautegiak dioena aipatu du euskaltzainburuak. Hamahiru euskaltzain batu dira, agiri honen hasieran esan denez, eta beste hiruren botzak idatziz jaso dira, J. L. Davant eta P. Larzabalek, J. Haritschelharri emanez euren ahala; eta E. Knörr-ek, P. Salabururi. Hamasei txartel legeztatu dira, beraz. Hauetatik, hamabost baiezkoak izan dira, zuri batekin, eta lehen bozketan izendatu da euskaltzain berria. Horrela jakineraziko zaio Pierre Charritton jaunari.

*Azken ordukoak.* Bilbon Plaza Barriko egoitzaren hitzarmena uztailaren 10ean izenpetu zela, jakinerazi da batzartuei. J. M. Arriola notarioak euskaraz jaso du honen agiria. Bizkaiko Diputazioaren aldetik J. M. Makua eta P. Zurikaray egon omen ziren bertan, hala nola L. Villasante, A. Irigoyen, P. Salaburu, J. San Martin, J. A. Arana eta J. J. Zearreta, Euskaltzaindiaren izenean.

“Isabel Lertxundi eta Jesus Mari Aldai” Durangoko Idatz-lehiaketaren antolatzaileek epai mahairako lagun baten izena eskatu dute. A. Irigoyen arduratuko da.

Checoslovaikiatik Pavel Mrkvánek jaunak euskal olerkien itzulpena egiteko asmoa agertzen du, horretarako gaiak eskatuz. Euskal Herrira etortzekoa denez jaun hori, P. Salaburu arduratuko da bere harremanez Bizkaian, eta J. San Martin Gipuzkoan.

Gutun baten bidez E. Knörr euskaltzainak aditzera ematen du, ekaineko batzar agirian ez dela aipatzen berak Campion-Broussain Elkargoaren urteko batzarreaz esandakorik. Horren berri eman zuen, noski, balantzea eta guzti.

## **Batzordeen berri**

*Argitalpenak.* Iruñerriko toki-izenen lehen bilduma, J. M. Jimeno Juriok egina, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak ordaindurik argitaratuko dela, esan du J. M. Satrustegik. Diru laguntza hau onartua izan da eta Iker Saileko sorta berri baten hasiera da.

Idazleen zuzenketak epe mugatu baten barnean egin beharra ikusi da. Era berean testuak aldatu eta gehitzerik ez dagoenez, egile bakoitzari ohar hauek oroitaraztea erabaki da. P. Altuna izendatu da harremanen arduradun, arazoa bideratzeko eskariarekin eskubide osoak emanez.

*Gramatika.* Hilabete batez amaitu direla Euskaltzaindiak beretzat hartuak zituen Iruñeko Biltzarreko txostenaren mila aleak, esan dute batzordekoek. Ezin dugu ahortzi beste mila badituela elkar-edizioz jasoak Nafarroako Gobernuak eta haiek zertan diren ikusi behar da lehenik, beste argitalpenarekin sartu aurretik. Ondoko egunetan beraiekin mintzatzekotan gelditu da J. M. Satrustegi.

Biltzarreko beste txostenak inprimategian aurreratutak daukate eta laster bialduko omen zaizkie egileei. **Euskera**-ren zenbaki bat osotzen dute.

*Dialektologia.* Batzordea goizean bildu da Atlasen egoera aztertzeko eta arratsaldean jarraitzen duelarik euren bilerak, ez dute batzarrera inolako agerpenik ekarri.

## **Txostena**

M. Zalbidek Euskaltzaindiaren eskariz Hiztegegintza batzordeaz egindako txosten mardula irakurri du. Lau puntu nagusi azpimarratu ditu bere lanean: Orain arte ibilitako bidea, epe luzerako plangintza, 1990 arteko asmoa, eta epe

laburrerako ekintzak. Honelako lan zabala aurrera eraman ezinik ez du ikusten txostengileak. Galdera bati erantzunez, zera dio: Hiztegitzinta Euskaltzaindiak bere-bere lana duela eta hemen aurkeztutako batzorde baten bidez aurrera eramateko modukoa dela. Euskaltzaindiaren lana ote den galdetu duenez F, Krutwig jaunak, euskaltzainburuak erantzun dio arauak ematea geure eginkizuna dela. Maileguzko hitzekin egin den bezala, hitz elkartuekin hasiko gara orain eta eratorpenekin geroago. Gure egitekoa ez da zein hartu behar diren esatea, itxura aldetik nola egin behar den baizik

### Liburu aurkezpena

Euskararen Lekukoen bilduman hamaikagarren zenbakia aurkeztu du L. Villasante jaunak. “*Bayonaco Diocesako Bi-garren Catichima* hau prestatzen nola hasi zen azaldu ondoren, liburuaren berezitasunak eman ditu. Hizkuntza aldetik bere garrantzia izan zuen Iparraldean, Baionako elizbarrutian anitz urtez testu bezala egon baitzen. Ba ziren Lavieuxville gotzaiaren aginduz ateratako bi kristau-ikasbide: laburra eta gaur kaleratu hau. Lapurdierara G. Harosteguyk itzuli zuen eta hau oinarritzat harturik egin zuen J. A. Mogeleg, bizkaieraz, argitara gabeko bere itzulpena. XVIII.mendeko eliz-giroa eta Lapurdiko literatur-tradizioa aztertzen ditu hitzaurrean Villasantek, argitalpen honi nahiz testuari egindako oharrekin amaitzeko. Julio Urquijo-ren liburutegian badago argitalpen zaharretako ale bat. Euskara idatziaren lekukoetara jotzea behar beharrezkoa da eta bilduma honen helburua zera da, iragan mendeetako idazkiak edizio fidagarrietan ikerleei eskaintzea, esan du euskaltzainburuak. G. Harosteguyren euskara guztiz ona da. Argitalpen honetan, testua dagoen bezala eman da. Azkenekoz, eskerrak eman dizkie lagundu diotenei.

J. Haritschelharek eskerrak eman dizkio liburu honen prestatzen egin lanagatik Villasanteri. Apeza ez bada ere, auzapez ohiak azken hitza bere, esan du umorez. Liburuaren hitzaurrea eta edukina aipatu ditu lehenik, 48 orritan emandako hiztegia azpimarratuz. Lan haundia da azken urte hauetan idazle zaharren hiztegia jasoz egin den lana, eta orain hau ia nehork ezagutzen ez zuen Harosteguyrena. Euskararen Lekukoetan bederatzi idazle agertu direlarik, zazpi Iparraldekoak direla ikusteak zerbait esan nahi duela, zioen Haritschelharek. Euskal Literatura denena da eta “batasunaren aldeko batasuna” agertzen du. Beste urrats bat Euskaltzaindiaren lan haundian.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante,  
Euskaltzainburua

Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi  
Idazkaria